

txostena

2008



MUGARIK GABE

Garapenerako Lankidetzarako
Gobernuz Kanpoko Erakundea



MUGARIK GABE

Aurkezpena

Orain esku artean duzuen memoria hau amaitzen genuen bitartean Mario Benedetti hil zen. Uruguayko idazlea, gozatzeko, hausnarketarako eta mundua aldatzeko, antolatzeko eta salaketarako modu berria pentsatzeko hainbat eta hainbat poema eta idatzi oparitu dizkigun idazlea. Bereziki injustiziaren aurrean geldirik ez egotekoak.

Bera oroitzuz memoria honen hasieran eta amaieran bere bi poema erabiliz omenaldi txiki bat egin nahi diogu... pentsatzen... eta ekiten jarraitzeko.

Paper birziklatuan imprimatutako memoria
Depósito Legal: VI-378/07

PREGOIA

Begiratzen ez nauen jauna
begira nazazu pixka bat
Nik pobrezia daukat zuretzat

garbia
Berria
Ongi desinfektatua
Berrogei balio du
baina hamarren truke emango dizut

aurkitzen ez nauen jauna
bila ezazu pixka bat
mugitu eskua
mugitu hanka
bila ezazu zure zortean
txoko guztietan
pentsa ezazu
izan ez zinen gauza askotan


pobrezia saltzen dizut
insignia bat da
lepoan konbentzi dezake
zein gauza arraroak gertatzen
diren munduan
zuk ura daukazu
nik egardia
zure ozala daukazu
zure Jaungoikoa
zure deabrua
zeruetan zure fedea
eta zure fede txarra
dena daukazu pobrezia izan ezik
erosten ez baduzu
gero negar egingo duzu

iragarki gisa doa
lagin gisa
agian gustuko izango duzu eta
ehun jarriko diozu
pobrerik gabeko pobrezia
noski
pobreek ez baitute inoiz
ongi usaintzen

pobrezia abstraktoa
arropa zaharrik gabea
garbia
noblea eskuinera
noblea beste aldera
kontatzeko moduko pobrezia
ederra
postrearen ondoren
eta kafea hartu aurretik

begiratzen ez duen jauna
begira ezazu pixka bat
nik pobrezia bat daukat zuretzat
ez dizut salduko
oraingoan
oparitu egingo dizut.

Mario Benedetti





Misión

MUGARIK GABE Garapenerako Lankidetzarako Gobernu Kanpoko Erakunde bat da eta bere EGITEKOA giza garapen integralerako eskubidea bultzatzea da, ez bakarrik garapen ekonomikoa; garapen horrek berdintasunezkoa izan behar du emakumeen eta gizonen artean, eta herrien artean, eta iraunkorra etorkizuneko belaunaldientzat.

Garapena modu globalean ulertzen dugulako, herrialdeen arteko **interdependentzia, eta gizartea, pertsona, politika, ekonomia eta egitura eraldatu** nahi dugulako, ondoko arloak landu nahi ditugu:

- 1.- **Eragin politikoa**, Iparraldeko zein Hegoaldeko plataforma, aliantza, sare edota errebindikazio guneetan parte hartuz eta horiek indartzuz, antolakunde soziopolitikoekin zein erakundeekin batera.
- 2.- **Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa**, garapen eredu neoliberalak kritikatu, eta euskal gizarteari beste errealitate batzuen berri eman.
- 3.- **Nazioarteko lankidetzak**, Latinoamerikako tokian tokiko emakumeen antolakundeekin eta indigenen antolakundeekin batera sustatutako prozesuak lehenetsiz.

Aldi berean, barnean bultzatu behar ditugu:

- * Genero berdintasuna, kultura aniztasuna eta partaidetza horizontala (borondatezko lankideen eta liberatutako langileen artean) erakunde berdintasunaren adierazgarri.
- * Subiranotasun pertsonala eta askatasuna, garapen pertsonal eta sozialerako oinarri gisa.
- * Koherentzia, elkartasuna eta elkar laguntzea, justiziarako ezinbestekoak dira eta.
- * Eta ingurumena zaintzea, elkarrekin eta ingurumenarekin ditugun harremanetan funtsezkoa da eta.

Mugarik gaberen baloreak

Subiranotasun pertsonala

Subiranotasun pertsonala (enpoderamendua, autonomia, autoestima) pertsona bakoitzaren boterea da, erabakitze eta norberaren bizitza aurrera eramateko, barne askatasuna da. Subiranotasun horren anketak pertsona baten bizitzaren dimentsio guztiak hartzen ditu bere baitan, bizi den testuinguru sozialean, autodeterminazioa lortzeko komeni den moduan, zorientasuna eta autoerrealizazioa. Autoistimua ez da norberaren ideia ona izatea soilik. Ekiteko gaitasun propioaren kontzientzia da (Albert Bandura) gehi duintasun propioaren kontzientzia¹.

Norberak daukan boterearekiko erantzukizuna esan nahi du (horizontaltasuna), parte hartze sozialarekin partekatuz (militantzia). Enpatia ere esan nahi du, norbere buruarengan konfidantza, sendotasun eta ahultasun pertsonalak onartzea, eta besteen garapena sustatzeko gaitasuna. Lan intelektuala esan nahi du, beharrezkoak diren jakintzak eskuratzeko eta ongizaterako garapen emozionalerako lana. Hezkuntza emozionalaz hitz egiten dugunean izaera formatzeaz ere hitz egiten dugu².



Justizia

Justizia harreman sistema bat da eta pertsona bakoitzari behar duena ematea bilatzen du, ingurumenaren jasangarritasunik, indibidualtasunera eta kolektibora (soziala, kulturala, ekonomikoa eta politikoa). Justiziatik edo etikatik ekitean zure bizitzaren arlo guztietan, koherentziaren ondorengo praktika deskribatzen du.



Koherentzia

Koherentzia norberaren eta kolektiboaren aurkakotasuna gutxitzea da, harreman guztietan eta bizitza propioaren zein kolektiboaren maila guztietan baloreen arabera eta arduraz jokatzeko. Printzipio teorikoen eta eguneroko ekintzen artean koherente izatea, ekintza politiko-sozialean eta aldaketa pertsonalean. "Egiten duguna gara" printzipioarekin ere lotuta dago, eta "egiten duguna" bezain garrantzitsua da "nola egiten dugun".

¹J.A. Marina, p. 249. ²Daniel Goleman, Inteligencia emocional.



Elkartasuna - Elkarri laguntzea

Elkartasuna injustizia egoerak bizi dituzten edota mundu justuago bat aldarrikatzen duten beste pertsona edo kolektibo batzuen tokian jartzea da, eta ondorioz injustizia horiek aldatu eta gure egiteko lan egitea, horietan dugun erantzukizuna ikusiz.

Elkarri laguntzea kooperazioa deskribatzen duen terminoa da, elkarrenganako eta talde lana bai pertsonen arteko harremani dagokienez, interorganizazionala, soziala, ekonomikoa eta politikoa, horrek elkarrenganako trukaketa boluntarioa esan nahi duelarik, trebetasunak eta zerbitzuak bi aldeen onerako. Elkarrekiko errespetua esan nahi du, prozesu eta une ezberdinei, entzuten jakitea eta aurreiritziak saihestea.



Kontzeptu horiek interdependentzia balorearekin dute zerikusia, errealizatzeko beste pertsonarekiko dugun beharra, eta egiten dugun guztia gure inguruan eragiten duen errealitatea, pertsonak edo natura izan. Gure interdependentzia onartzea indibidualismoaren aurka egitea da.

Berdintasuna

Pentsatzea pertsona guztiak berdinak direla euren duintasunean, eskubideetan, bizitza duin³ baterako oinarriko behar humanoetan eta hauek asetzeko duten beharrean, erantzukizun sozialean, erabakitze boterean. Hori bera, bere osotasunean, aplikatu daiteke giza kolektiboetan. Balore horretan sinistea gure lana zuzenean alderdi horietan oinarritzea esan nahi du:

Genero berdintasuna

Generoa ezaugarri multzo bat da eta gure izaera, garatzen ditugun trebetasunak, ematen zaizkigun lanak eta leku eta une bakoitzean gizon eta emakumeei onartzen zaizkien baloreak ditu ezaugarritzat, horiek sozialki eraikiak dira (aldakorrak) sexuaren interpretazio gisa (aldagaizta). Kontzeptu horrek margina eman zuen testuinguru jakin batean maskulinitasuna eta feminitatea ulertu eta detektatzeko. Genero kontzientzia giltzarria da garapenerako genero ikuspegiaren.

Berdintasun kontzeptua pertsona guztiei legearen aurrean eman beharreko tratua berari dagokio, **ekitateak** gure gizartearen pertsonen artean eta hauen posizio ezberdinen artean dauden ezberdintasunak azpimarratzen ditu, eta ezberdintasun horiek kontuan izaten ditu aukera berdintasuna lortzeko estrategiak lantzeko garaian.

Gizon eta emakumeen arteko ekitateak esan nahi du ezberdintasunak onartuz berdintasuna lortzea. Horrek esan nahi du beti ez direla pertsona guztiak berdin tratatzen, izan ere, ezberdinak diren pertsonen tratua bera emateak askotan ezberdintasunak sortzen ditu. Ekitateak justizia esan nahi du, hau da, bakoitzari dagokiona ematea, aniztasuna onartzea da.



Kultura aniztasuna

Kultura gizarte baten bizitzeko eta adierazteko modu guztiak dira, eta etengabeko aldaketan dagoen gizarte jakin batena. Barne hartzen ditu jakintzak, sozialki antolatze moduak eta erakundeak, munduaren ikuspegiak, praktika eta alderdi material eta inmaterial guztiak. Kulturaren bidez baloreak jasotzen ditugu, aukerak egiten ditugu, adierazi egiten gara eta gure kontzientzia hartzen dugu.

Kultura aniztasuna defendatzea errespetua, babesa eta sustapena bermatzea esan nahi du. Kultura aniztasuna ezinbesteko baldintza garapen jasangarri baterako, izan ere "kultura eskubideak dira, beste giza eskubideak diren bezala giza duintasunaren adierazpena eta eskakizuna" eta hauen onarpena eta ariketa ezinbestekoa dira "kultura nortasunak babestu eta sustatzeko eta kultura aniztasuna eta gizarte demokratikoetako kulturen arteko elkarrizketarako"⁴ Ezberdintasuna ez da berdintasun eza aukera baizik.

Kultura aniztasunaren kontzeptuak zuzeneko zerikusia du herri baten eskubide kolektiboaren kontzeptuarekin, autodeterminazioaren bidez euren eredu kulturalak, sozialak, ekonomikoak eta politikoak zehaztearekin eta inplementatzeko eskubidea dute. Hori guztia herri ezberdinen arteko elkarrenganako errespetu marko batean.

³ Gizakiaren oinarriko beharreak finitak, gutxi eta sailka daitezkeenak dira. Gainera, gizakiaren oinarriko beharrek berak dira kultura guztietan eta historiaren aro guztietan. Aldatzen dena, denboran eta kultura ezberdinetan, behar horiek asetzeko erabilitako moduak edo bitartekoak dira. Oinarriko beharrek honakoak dira: bizirautea (osasun, elikadura, etab.), babesa (segurtasun sistemak eta prebentzioa, etxebizitza, etab.), afektua (familia, lagunak, pribazitatea, etab.) ulermena (hezkuntza, komunikazioa, etab.), parte hartzea (eskubideak, erantzukizuna, lana, etab.), aisia (jolasak, ikuskizunak) somena (trebetasunak, abilezia), nortasuna (erreferentzia taldeak, sexualitatearen baloreak), askatasuna (eskubide berdintasuna). Gizakiaren beharren errealizazio armonikoa garapen prozesuetan integrazteak esan nahi du pertsonen garapen hori hasiera hasieratik bizi ahal izatea; garapen osasuntsu, autodependiente eta parte hartzaile bati bide emanez, hazkunde ekonomikoa, elkartasun soziala, pertsonen hazkunde eta ingurumenaren babesa bateragarri egingo dituen orden baten oinarriak sortzeko gai dena. Aipatutako gizakiaren oinarriko beharrek, gizakiaren eskubide inalienableak izan behar dute, izan ere hauek izatea eta praktikan jartzea duintasuna ematen diote indibiduoari eta komunitatei. Behar hauek asetzeko ingurumen marko sarea izatea esan nahi du. Ingurumenaren degradazioak kutsadura prozesuak eragiten ditu eta baliabideen arazoirik gabeko "ustiapena", modu larrian jotzen du hauen aurka. Gaur egun eta mundu mailan, garapen ekonomiko eta teknologikoko ereduengatik milioiak gizakik ez dute aukerarik izan oinarriko behar hauek asetzeko. **Susana Choren**

⁴ Proyecto de Declaración sobre los derechos culturales (1997ko irailako bertsioa). Proiektu hau Frigburgoko Unibertsitatean (Suitza) egiten ari da, UNESCOren elkarlanean, UNESCOko Suitzako Batzorde Nazionalarekin, Europako Kontseiluekin eta Giza Eskubideen Institutuen Sarearekin batera.



Parte hartze horizontala

Parte hartzea prozesu bat da eta horren bidez pertsonak, kolektiboek eta lurraldeek euren baliabideak, nortasuna berreskuratzen dute, bizitza sozialean, politikoan eta kulturean parte hartzen dute eta euren ahotsa entzunarazten duten instantzia guztietan.

Horizontaltasuna edo horizontalitate kontzeptuak botere egiturak eta gizakien arteko harreman ez ierarkikoak sortzea, garatzea edo mantentzen ahalegintzea eskatzen du. Benetako askatasunerako beharrezko faktorea da. Ez da azpitik berdintzeko saiakera bat, baizik eta erabakietan eta eragiten dieten ekintzetan zuzeneko partaide eta aktibo eginez denak altxatzea. Horizontalitatea berdintasun hitzarkein lotuta dago, bai ekonomikoa bai boterearena, eta horretarako beharrezkoa da subiranotasun pertsonala lantzea. Horizontalitateak pertsona boluntarioak eta liberatuak berdin egiten ditu erakundearen barruan.



Militantzia: Gure ustez militantzia konpromisoa da, erakunde honekin identifikatetik sortzen den konpromisoa. Kontzepzio horren arabera pertsona erakunde bati lotuta dago euren helburuekin eta prozedurekin bat egiten duen neurrian eta bere parte hartze aktiboak intentsitateak eta denborak identifikatze horren menpe dagoen neurrian. Horregatik berdin du erakundearekin lan harremana izan edo ez.

Asanblada: Eraikuntza kolektiborako parte hartze horizontalerako organu politikoa da erakunde bat osatzen duten pertsonen osatua, liberatuak edo boluntarioak izan. Bertan euren iritzia eman dezaketa edo zuzenean eta bitartekorik gabe erabaki, eskubide gisa, aldi berean informaziorako eta formaziorako betebeharrak eta eskubideak dutelarik. Akordioetara iristeko kontsentsua erabiltzen da eta botoa akordioa posible ez denean erabiltzen da.

Kontsentsua: erabakitze prozesua, parte hartzaile gehienek akordio bilatzeaz gain gutxiengoaren helburuak lortzea bilatzen du erabakirik asegarriena bilatzeko. Erabakiak hartzeko modu hau eraikuntza kolektiboaren prozesua da, eta beste batzuen artean asanbladaren heldutasuna, komunikazioa eta entzutea eskatzen du.

Askatasuna

Giza gaitasuna, immanentea, autodeterminazio esan nahi duena. Gizakiaren gaitasuna izendatzen du zerbait egin nahi duen edo ez erabakitzen laguntzen diona. Libre egiten du, baina baita bere ekintzen erantzule ere. Azken hau beteko ez balitz libertinajez hitz egiten ariko ginatke.

Askatasuna beti dago izan nahi dugun pertsona motaren menpe. Baina askatasuna benetakoa izan dadin berdintasuna izan behar du. Sarbide berdintasuna eta hainbat baliabideen kontrola (naturalak, ekonomikoak, harremanak, ezagutzak, teknologikoak...). Azken batean berdinak izateko askatasuna, aske izateko berdintasuna. Askatasun hori indibidual zein kolektiboki adierazten da.

Pentsaera askatasuna indibiduok libreki iritzia emateko duen eskubidea da, horregatik jazarri, zigortu edo molestatua izan gabe. Eta adierazpen askatasuna manifestatzeko eta norbere pentsamendua plazaratzeko eskubidea da, pentsamenduak eta iritzia libreki adierazteko.

Pentsamendua eta iritzia ezagutzen eta esperientziaren arabera sortzen dira, beraz, formazioa eta esperientzien bizipena edo horietara hurbiltzeak pentsamendu sendoagoa eta koherenteagoa lortzen laguntzen du.

Ezagutzaren eta esperientziaren arabera pentsamenduak eta iritzia subjektibizatu egiten dira. Beti daude errealitate beraren hainbat irakurketa, eta errespetutik, malgutasunetik eta irakitasunetik bisualizatu daitezke. Era berean elkartzen gaituzten afinitateak aurkitzen ditugu, identifikatzen gaituztenak eta ideia eta pentsamendu berria sortzea errazten dutenak.

Oso garrantzitsua da pentsamendu eta adierazpen askatasunari beste oinarrizko eskubide indibidual eta kolektiboak lotzea, gure pentsamenduak libreki ejerzitu eta garatzeko (biltzeko eskubidea, manifestatzekoa, etab.).

Ingurumenarekiko errespetua

Pertsona izaki soziala da eta bere ingurunearekin eta naturako gainerako izakiekin armonizatu behar du. Konpromisoa hartu behar du gizakiaren osasuna ekosistema naturalekin armonian mantentzeko, eta Gizateria Naturaren zatitatzeko jo behar du eta ez aparteko zerbait. Gizakiaren eta bere habitataren arteko independentziaren analisia ekosistemen babesa ekarriko du, kudeaketa jasangarria eta ingurumenaren berriztapena, eta giltzarri izango da gizakien beharrak gainerako ekosistemako beharrekin orekatzeko.

Kontsumoa gure beharrak asetzeko modu bat da; eta erabiltze, gastatzea edo desgaztatzea dakar (erosi, zerbitzu bat erabili edo kontratatu, trukaketa edo truekea). Ez du konnotazio positibo edo negatiborik, baina eragin negatibo bihur daiteke.

Pertsonak eta erakundeek euren beharrak zalantzan jartzen dituztenean eta hauek asetzeko egoera pertsonala, eragin soziala eta ingurumeneko kontuan hartzen saiatzen direnean, orduan ari gara **kontsumo konziente, arduratsu edo etikoaz** hitz egiten. Kontsumo jarrerak eta ohiturak zalantzan jartzea esan nahi du. Informazioa bilatu, kontrastatu, hausnartu etabar egitea esan nahi du. Eta horrek esan nahi du gure hautatzeko gaitasunaz eta kontsumitzeko kulturari mugak jartzeko botereaz koiziente izan behar dugula. Kontsumo koiziente eta arduratsua ekintza politikoa da bere horretan.

⁵Diccionario Jurídico Espasa. ⁶Diccionario de la RAE.



6

Egitekoa

Mugarik Gabe parte-hartze tresna bezala

Aldaketa pertsonala eta soziala gauzatzeko, kontzientzia hartu eta norabide horretan lan egin beharra dago, horrela beraz, Mugarik Gabe helburu horretarako tresna izan dadila nahi dugu.

Hori hala izanik, antolamendu guztiz asanblearioa dugu, hau da, erantzukizunak partekatzen ditugu eta bazkide, boluntario eta kontratatupeko pertsonalarekin batera erabakitzen dugu erakundearen estrategia.

www.mugarikgabe.org

Zure partehartzeari esker jarraitzen dugu lanean

Eremuak eta parte hartzeko moduak

- Diruz laguntzen duten bazkideak
- Ekimenetan parte hartzen duten boluntarioak:
 - Bazkideen batzordeetan eta hileroko batzordeetan parte hartzea
 - Lan taldeetan parte hartzea:
 - Garapenerako sentsibilizazio eta hezkuntza taldea.
 - Garapen proiektuen taldea.
 - Kudeaketa eta administrazio taldea.
 - Genero taldea.
 - Herrialdeetan parte hartzea.

Dohaintzak

- Urteroko bazkide kuotaz gain, nahi baduzu dohaintzak ere egin diezazkigukezu, bai proiektu jakin bat bultzatzeko, bai giza garapen ekitatibo eta iraunkorraren alde egunero egiten dugun lana sustatzeko.

Jakinarazi nahi dizuegu, Mugarik Gaberi egindako ekarpenak errenta aitorenean kentzekoak direla.

Dirua sartzeko:

EUSKADIKO KUTXA - 3053 0083 22 0830701234

BILBAO BIZKAIA KUTXA - 2095 0349 80 9103417445

Hogei urte hauetan bazkideen eta diru-emaileen laguntza eskertzen dugu, baita Mugarik Gaberen egunero lanean Euskadiko Kutzaren kolaborazioa ere.



MUGARIK GABE

O.N.G.D. / G.G.K.E.

Declarada de utilidad pública

www.mugarikgabe.org

Zure lankidetzari esker dihardugu lanean / Tu colaboración hace posible que sigamos trabajando

Izen deitura / Nombre y apellidos:

Jaiotze data / Fecha de nacimiento:

Lanbidea / Profesión:



Helbidea / Dirección:

Herria / Población:

R.K./C.P.:

e-mail:

NAN / DNI:

Banku edo Aurrezki Kutxa
Entidad

Bulegoa
Oficina

Kontrol
Control

Kontu Zbkia.
Nº Cuenta

10 euro hilean
10 euros al mes

edo nahi duzun zenbatekoa / o el importe que desees:

.....euro hilean
.....euros al mes

.....euro hiruhilabetean
.....euros al trimestre

.....euro sei hilabetean
.....euros al semestre

.....euro urtean
.....euros al año

Hurrengo PFEZren zergarinketarako diru laguntzetako ziurtagiria jaso nahi dut.
Deseo recibir el certificado de donación para la desgravación en el próximo IRPF

Bidali BILBOKO MUGARIK GABE-ra / Enviar a MUGARIK GABE BILBAO

Sinadura / Firma:

PFEZren ZIURTAGIRIA

Mugarik Gaberi egindako diru laguntzak kengarriak direla errentaren adierazpenean gogoratzen dizuegu. Urte honetatik aurrera eta arautegi berria dela eta, kenkaria diru laguntzetako % 30a da. Ziurtagiria nahi izanez gero, gurekin harremanetan jarri.

CERTIFICADO DE IRPF

Os recordamos que las aportaciones realizadas a MUGARIK GABE son deducibles en la declaración de la renta. Desde este año y al acogernos a la nueva normativa, la deducción es del 30% de las aportaciones. En caso de desear el certificado, ponerse en contacto con nuestra oficina.

BILBAO: Grupo Vicente Garamendi 5, Lonja - 48006 Bilbao • Tel. 944 154 307 • Faxa: 944 166 796 • bilbao@mugarikgabe.org

DONOSTIA: Tejería Kalea, Bajo 1, 5 zbka accessorio, 20012 Egia Auzoa. • Tel. 943 445 977 • Fax: 943 445 977 • 656708598 • gipuzkoa@mugarikgabe.org

GASTEIZ: Casa de asociaciones 'ITZIAR' - Plaza Zalburu, s/n Arana Auzoa - 01003 Gasteiz • Tel. 945 277 385 • araba@mugarikgabe.com



El Salvador

Nazioarteko lanbidetza emakume antolatuekin

2008 hauteskunde aurreko urtea izan da El Salvadorren. Izan ere, 2009an izango diren hauteskunde legislatiboak eta udal hauteskundeak, eta martxoan errepublikako presidentea zein izango den erabakiko da. Hauteskunde hauetan badirudi Askapen Nazionalerako Farabundo Martí Frontea – FMLN – benetako aukerak dituela presidente izateko, modu horretan eskuina, Alianza Republicana Nacionalista –ARENA–, ordezkatzu, 1989tik herrialdea gobernatzen duena.

Hauteskunde horiek erronka berri bat izango dira gaur egun alderdi politiko nagusien artean dagoen bipolaritatea murrizteko eta parte hartzea handitzeko. Kontuan izanik prozesu honetan emakumeen parte hartzea beharrezkoa dela, gaur egun ASanblada Legislatiboan duen ordezkartza %10ekoa baita. 2008an mugimendu feministak ahalegin berezia egin du emakumeekiko politika nazionalak definitzeko eta hauetan aldaketak egiteko, 2009-2014 Plataforma Feminista ikus daitekeen bezala.



Indarkeria gero eta handiagoa da eta herrialdeko arazorik larrienetako bat da, emakumeengan intzidentzia berezi duen araberak, 2008. urtea amaitu baino hiru egun lehenagoko datuen arabera 3.000 pertsona ziren hildakoak. Datu horrek agerian uzten du Saca presidentek emandako hitzaren porrota, El Salvador "Latinoamerikako herrialderik seguruen" bihurtu nahi baitzuen.

Pobrezia buruzko datu orokorrek herrialdea giza garapenean erdiko mailan kokatzen dute (2007ko giza garapenean indizean 103. postuan jarritik), baina datu hauek eta ODMko aurrerapen adierazleek landa inguruneetako pobrezia eta berdintasun ez bezalako alderdiak ezkutuan mantentzen dituzte, bereziki emakumeena. Adibide gisa biztanleen %18 analfabetismo egoeran dago, ekonomikoki aktiboak den biztanleen %20 bakarrik dauka enplegu duin bat edo hiriko biztanleen %24k arazoak ditu ura eskuratzeko eta %53 landa inguruneetako biztanleengan.

2008an herrialdean **XVIII Gailur Iberoamerikarra** ospatu zen, eta gai nagusia gazteria eta garapena izan zen. Gailur horrek erakutsi du kontinentean aniztasuna handia dela, baina aldi berean hausdurak erakutsi ditu latinoamerikako herrialdeen artean. Era berean, El Salvadorreko gobernuak beste gobernuetako duen isolamendua azpimarratu du.



Mugarik Gaben Lana

Mugarik Gabeten duen lanarekin jarraitzen du, Las Dignasen bidez mugimendu feminista indartzen.

Las Dignasi laguntzeko gure apustuarekin jarraitzen dugu, erakunde politiko feminista bat da eta genero bazterketak ikustarazten lan egiten du, harreman hauetan emakumeen antolaketa prozesuak lagundu eta indartzen eta emakumeen mendekotasuna gaitzen laguntzen duten aukeretan; baita politika publikoetan argitzen ere. 2008an emakume gazteen erakundeei laguntza zehatza ematen eta herrialdeko mugimendu feminista laguntzen hasi da.

2009rako **erronka** nagusia hauteskunde panorama berriaren aurrean gizarte mugimenduen estrategiak indartzea izango da.





Nikaragua

Nazioarteko lanbidetzak emakume antolatuekin

Datu ofizialen arabera, Nikaraguako biztanleen %77,8k egunean 2 dolar baino gutxiago ditu bizi ahal izateko. Horietatik, %42,6k eguneko dolar 1 baino gutxiago dauka, horrek esan nahi du biztanle gehienak pobreziaren mugaren azpitik bizi dela eta 2,1 milioi gizon, emakume, neska eta mutil pobrezian bizi direla. Nikaraguak dituen egiturazko arazoek bere horretan jarraitzen dute, bere ekoizpen ahuletik, erakunde demokratiko hauskorretatik eta klase politikoaren arduragabekiaratik eratorriak. Gainera, gaur egun AEBei (bazkide komertzial garrantzitsuena) eta Europako herrialdeei (emaile eta kooperante garrantzitsuenak) eragiten dien atzeraldia ere eragingo dio: erremesak gutxitze, etorkinen itzulera, migrazio berriak, lanpostuak galtzea, zona frankoak ixtea, esportazioen jaitsiera...



2008 urteko bigarren erdian gobernuak kanpaina bat egin zuen bertako erakundeak, mugimendu sozialak zein nazioarteko GKE ospearean aurka, zenbaitetan erakunde hauen bulegoetan sartu eta dokumentazioa eta artxibo informatikoak eramanez, baita bi alderdi politikoaren personeria juridikoa baligabetu ere. Bestetik, testuinguru politiko nazionalak pasa den azaroan egin ziren udal hauteskundeak izan ditu protagonista; bertan FSLNk 105 alkatetza lortu ditu, PLCk 34 eta ALNk 4. Hauteskundeetako iruzurrak eragindako krisiak gatazka berri bat sortu du herrialdean. Ez zen espero ez hainbesteko iruzurrik ez horrelako bazterketa erantzunik.

Testuinguru nazionalari erantzuteko asmoz gizarte zibilaren erreakzioa egon da, martxa, planto eta demokratizazioaren inguruko adierazpen publikoen bidez, arropa eta frijoleak bezalako oinarritzko produktuen goranzko bazterketa eta aniztasun politikoa eta kudeaketa publikoaren gardentasuna salatzen. Emakumeen mugimenduen manifestazioak eta intzidentziak ere mantendu dira, bereziki duela 2 urtetik hona abortu terapeutikoa zigortzen duen legea baliogabetzeari dagokionez. Bestetik, onartutako Zigor Kode berrian, delitu sexualen eta etxeko indarkeriaren inguruko zigorrak murriztu ziren, emakumeek indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubidearen aurkako jarrera argia erakutsiz.



Mugarik Gaberen lana

Jabekuntza politiko-ideologikorako prozesuak garatu dituzten emakumeen lidergetza sustatu eta inzidentzia hobetzeko berrokatzen dugu.

Testuinguru honetan emakumeek sufritzen duten bazterketa eta menpekotasuna gainditzeko ikuspegi osoarekin berrokatzen duten landa inguruneko emakumeen erakundeak laguntzeko apustu garbia dugu, bakarkako eremuan zein kolektiboan.

Xochitl Acatl (Malpaisillo) emakume zentroaren programa guztiak laguntzen jarraitzen dugu, 2008an aipagarria da komunitatearen antolakuntzarako gune ezberdinen funtzionamendurako laguntza, baita ordezkatzan duten biztanleen aldeko ekintzak antolatzeko koordinazioa ere.

Comité de Mujeres Rurales (León) delakoarekin programa guztiak zerikusia duten estrategiak laguntzen jarraitzen dugu, eta 2008an aipagarria da intzidentzia eta enpoderamendu politiko-ideologikorako prozesuak

garatu dituzten emakume liderren sustapena hobetzeko egindako diagnostikoak. Hori guztia landa inguruneko emakumeen erakunde autonomoa bultzatzeko helburuarekin.

Colectiva de Mujeres de Masaya / Axayacatl-ekin, gure lehen proiektua amaitu dugu, eta orain bi erakundeen etorkizunerako estrategia zein izango den zehaztu behar dugu.





Kuba

Nazioarteko lanbidetzak: Kuba



2009ko urtarrilaren 1ean 50 urte betetzen dira Kubako iraultza garaile irten zela, eta data historiko honetatik 2008an gertatutakoa aztertzen dugu.

Zalantzarik gabe gertaerarik adierazgarriena Fidel Castroren erreleboa izan da, 49 urte baino gehiagoren ondoren. Hesteetako gaitz larri baten kargua uztera eraman du eta Raul Castro anaia aukeratu zuten bere postua betetzeko. Raulék iragarri du aldaketak egongo direla eta aldaketa horiek sozialismo eredu berri bat sortuko dutela, baita agintari belaundali berri baterako zubia egin ere. Oraindik itxaron egin beharko da aro berri hori zertan den ikusteko.

Kubak paradigma iraultzailea sortu du Amerikarentzat eta gaur egun Karibe mailan (ALBA, Petrocaribe, CARICOM) eta, oro har, sortzen ari den Amerika berrian, integrazio proiektu alternatiboak sortzen paper garrantzitsua du.

Kubako herria, bere eredu politikoarekin eta garapen eredu ekonomiko alternatiboarekin, pobretutako beste herrialdeek baino giza-garapen hobea izate lortu du, baita lehen mundukotzat jotzen diren zenbait herrialdek baino garapen adierazle altuagoak lortu ditu -hezkuntzan eta osasunean bereziki-. Aipatzekoak dira genero berdintasunean egindako lorpenak osasun- eta hezkuntza-zerbitzuetarako sarbideari dagokionez, baita teknikari, zuzendari eta parlamentari postuetan emakumeen ordezkaritza portzentai altuak ere.

Nazioartean, Barack Obama demokrata Estatu Batuetako hurrengo presidente izateko aukeratu izanak bukaera eman dio Bush-en aroari eta itxaropena ireki da blokeoaren amaieraren inguruan, horrek Kubarentzat eszenatoki berri bat ekarriko bailuke.

Azkenik, aipatu beharra dago, aurten uharteak urakan ugari eragina jaso zuela, horietako bi laugarren mailakoak (Gustav eta Ike). Zorionez, Kubako prebentziorako sistema eredu-garriek giza-galerak gutxitzea lortu dute. Dena dela, galera materialak izugarriak izan dira (8.600 dolar inguru), beste batzuen artean azpiegiturak, komunikazioak, etxebizitzak eta ekoizpen-tresnak.



Mugarik Gaben Lana

Azukrearen industriaren eraldaketa eta nekazaritzaren dibertsifikazioa elikadura subiranotasuna lortzeko prozesuan oinarritzekoak dira.

Mgren laguntza Kubako Gobernuak markatutako lehentasunak estaltzera bideratuta dago eta **elikadura subiranotasuna** lortzearekin lotuta dago, azukrearen industria eraldatuz eta nekazaritzaren eta abeltzaintzaren dibertsifikazioarekin. Prozesu horretan genero ikuspegia laguntzan eta sustatzen saiatzen ari gara tokiko bazkideen indartze instituzionalera bideratutako ekintza zehatzen bidez eta proiektuen hartzaile diren biztanleei.

2008an MGk Kubarekin lan egiten duen Euskal Kooperazio Mahaiarekin lanean jarraitu du eta insumo adierazgarri gisa Kubarekin Kooperazio estrategiaren azken bertsioa lortu du Eusko Jaurlaritzan, Kubako Gobernua eta herrialde horren garapenerako kooperazioan lan egiten dugun euskal erakundearen artean. Estrategia horren arabera, **Mugarik Gabe Eusko Jaurlaritzan** finantzatutako lana **Santiago de Cuba** probintzian zentratuko du, ACPA eta ANApeko gure bazkideekin. Dena dela, **erdialdeko**

probintzietan orain arte egindako lanarekin jarraituko dugu beste erakunde publiko batzuekin batera.

2009rako **erronka** Kubako emakume feministekin aliantza estrategikoak sortzea eta **genero berdintasunaren aldeko erakundeak** sortzea izango da. Hala, bertako gure bazkideekin batera, kubako nekazari eta abeltzainen kooperatibetan -gehien b at gizonez osatuak- generoaren ikuspegia sartzen lagunduko duten oinarriak eraikitzeko, proiektu berrien eta martxan dauden proiektuen bidez, etorkizunean beste kooperatiba batzuetarako proiektu piloto gisa. Gure ustez prozesu horiek oinarritzekoak izan daitezkeen ikasketak eskaintzen dituzte erakunde mistoetan genero ikuspegia sartzeko. Era berean, 2009an esperientzia trukaketa eta sinergien sorrera sustatzea proposatzen dugu **Kubako bazkideen** eta Zentzuz Kontsumituz proiektuan parte hartzen duten **Euskadiko ekotzile agro-ekologikoen elkartearen** artean.



Kolombia

Nazioarteko lanbidetzak Herri Indigenekin

Kolonbiako ejerzitoaren etengabeko zirikatzearen eraginez FARC ahulago daude, Manuel Marulanda lider historikoaren heriotza, deserzioak eta Ekuadorreko eta Venezuelako gerrilen laguntza politikoaren atzerakada, klase politikoaren urteetako paramilitarismoarekin ados jarri izanaren probak, bereziki Uriberen hurbileneoak, aurrez aurre zeuden bi aldeen artea



botere deskonpentsazioa ekarri du. Hala ere Uriberen gobernuak proposatutako bide militarra gatazkaren irtenbide gisa indartuta artera da, Kolonbiako testuinguru sozial eta politikoari eraginez eta nazioartean egon zitezkeen mesfidantzak ezabatuz.

Proba gisa, FARCen eskuetan zeuden nahitu historikoak askatu izanak bide justifikazio handiagoa eman dio bide militarri gatazka armatuaren irtenbide gisa, eta irtenbide posible gisa FARCekin hitz egitea eta bahituak askatzeko akordio gizatiarrak lortzea albo batera utzi du.

Uriberen gobernuaren indigenen mugimenduekiko estrategiak, hauen desartikulazio politikoak helburu dutenak gogortu egin da, bahituen askatasunak nazioartean eman dion kreditu politikoaren eraginez. Komunikabideak liberazio hauetan zentratu dira eta indigenen mugimenduaren aldarrikapen eta lorpenak gutxiago azaldu dira komunikabide nazionaletan zein nazioartekoetan.

2008ko bigarren erdian aipagarria da Minga Indigena aurrera eraman delako, gizartearen gehiengoaren aldeko jarrerarekin. Horrek deserroso sentiarazi du Alvaro Uriberen gobernu eta erantzun gisa indigenen mugimendu nagusiak estutu ditu, horien artean aipatzekoa da mugimendu indigenen aurkako zuzeneko erasoak, erahilketaren eta komunitateetan eta, oro har, mugimendu indigenetako erakundeetan beldurra zabalduz.



Mugarik Gaberen lana

OIA eta CRICen elkarlanak kuadro indigenen formazio prozesuak indartu ditu, 2005etik martxan daude.

Aurreko urteetan hasitako prozesuei jarraipena eman zaie. 2008an hainbat ekintza burutu dira OIA eta CRICekin batera, 2005etik martxan dauden indigenen formazio prozesuak indartzeko, eskubideen eta lurraldearen defentsarako, sustapenerako eta garapenerako:

-Antioquia Erakunde Indigena (OIA): Antioquian presente dauden herri indigenen giza baliabideen formazio eta gaitasun eremuan hasitako lanarekin jarraitu da. Esate baterako Antioquiako Indigenen Herriko Gobernu eta Administrazio eskolari laguntzeko hasitako lanaren jarraipena. Gainera aipatzeko da erakunde horrek azaroan Euskal Herrira egindako bisita ekimen hau bultzatzera bideratutako akordioak lortzeko helburuarekin.



Caucako Indigenen Kontseilua erregionala (CRIC): 2008ko ekitaldian errealitatearekin, beharrek eta nahi kulturekin bat datozen hezkuntza sistemak sendotzeko laguntzarekin jarraitu da. Horretarako, eta 2008ko ekitaldian zehar, hainbat proposamen aurkeztu ziren erakunde ezberdinetan hezkuntza proiektuak eta bizitza-planak laguntzeko, baita 'Consolidación de la Universidad Autónoma Intercultural Indígena' delakoa laguntzeko ere.



Bolivia

Nazioarteko lanbidetzak Herri Indigenekin

Konstituzio berria onartzeko erreferendumaren deialdiarekin, eta Boliviako oligarkiak Estatuko harreman etnikoen, politikoaren, sozialaren eta ekonomikoaren berrezarpenari egindako etengabeko aurkakotasunarekin, prozesu konstituziogilea 2008ko maiatzera arte luzatu izanak nabarmendu du 2008. urtea.

Euren eragin ekonomikoa eta politikoa galtzeko ikuspegiaren aurrean, oligarkia behin eta berrero saiatu da Evo Moralesen gobernuaren edozer ekimen geldiarazten, gobernu zentrala ahultzera zuzendutako ekintzak bultzatzen, oraindik euren menpe dauden mekanismo politikoaren bidez; hala nola, departamentuak eta udal gobernuak Santa Cruzen, Cochabamban, Tarijan, Benin, Pandon eta Chuquisacan.

Desegonkortze prozesuekiko gizartearen babes falta dela-eta, oligarkiak barne zein kanpo laguntza bilatzen du. Oposizio mota horiek egiteko erabilitako indarkeria gobernuaren alde dagoen oinarri soziala desegiteko beharraren ondorioa da, eta oposizioaren helburu nagusia indigenak dira. Ondorioz, irailaren 11n Pandoko sarraskia gertatu zen, eta oligarkiarekin zerikusia duten taldeek 20 indigena hil zituzten. Zenbait ikerketa-prozesuren ondoren, kontinenteko eta nazioarteko hainbat instantziak sarraskia salatzen dute.



Mugarik Gaberen lana

Telebista eta irrati bidezko komunikazio sistema instalatzeko bidean gaude, herrialdeko erakunde indigena eta nekazarien eskutik.

Aurrera jarraitzen du Evo Moralesen gobernuak gauzatutako erreforma politikoaren eta herri indigenen eskubideak indartzeko prozesuaren aldeko MGren apustu politikoak.

Nabarmenezkoa da 2007an, CEFREC elkartarekin, hasitako lanaren jarraipena (hainbat urteko prozesuan errotutakoa), indigenen eskubideen trebakuntzan eta komunikabideen garapenaren esparruan. Aipagarria da 2008an hasitako «Ikus-entzuneko komunikazioan eta eskubide indigenetan espezializatutako gaitasunaren eta trebakuntzaren indarketarako» proiektuen eta «Behe-lurraldeetako

eskubide indigenen defentsarako kulturen arteko komunikazio sistema» programaren gauzapena. Komunikazio sistema horren ezarpena herrialdeko zenbait puntu estrategikotan jadanik martxan dauden komunikazio gune ezberdinen eta beste berri batzuen arteko erlazioa ekarriko du. Guzti horren helburua herrialdeko erakunde indigenen eta nekazarien eskuetan egongo den telebista eta irrati komunikazio sistema instalatzea da. Era berean, esparru berean kokatzen da eraikitzen ari diren herrialde berriaren estrategiaren barnean dagoen giza eskubideen eta eskubide indigenen trebakuntzan egindako lana.



Guatemala

Nazioarteko lanbidetarako Herri Indigena eta emakume antolatuekin



2008 urtea ezjakintasun giroan hasi zen, eta itxaropen giroan ere bai, izan ere Alvaro Colomen gobernu berria sozialdemokrata gisa eta ezkertiar gisa saldu zuen bere burua, baina berehala ikusi zen diskurtso populistak atzean eskuineko ideologia bat zuela eta bake akordioak urratuz agerian gelditu zen. 169. akordio eta galdeketa komunitarioen aurkako megaproiektuak bultzatuz enpresa transnazionalak eta anazionalak baliabide naturalak lapurtzen jarrai zezaten.

Beste aldean, gizarte mugimenduek indartzen eta koordinatzen aritu dira urte hauetan, beste gauza batzuen artean Guatemaka Amerikako Foro Soziala ospatu zelako. Bertan kontinenteko herrialde eta sektore ezberdinetako 10.000 pertsona baino gehiagok hartu zuten parte.

También la aprobación de la "Ley contra el feminicidio y otras formas de violencia" y "la ley de paternidad responsable" legeen onarpena ere antolatutako gizarte zibilaren etengabeko lanaren fruitua da.



Mugarik Gaberen lana

Sector de Mujeres erakundearekin lan egiten hasi gara, gizarte- eta emakume-mugimenduan erreferentea da eta aurreko urteetan ASECSAren hasitako lanarekin jarraitu dugu.

Herrialdean ekintza estrategia aldatzen hasi ginen eraldaketaren alde lanean ari diren gizarte mugimenduen bultzatzen dituzten prozesuak lagundu behar direla pentsatuz, eta kasu honetan subjektu politiko berri gisa identifikatzen genuen, oinarritzko eragile gisa emakume eta herri indigenak zituelarik, oinarritzko eraikuntza soziala, barne demokrazia eta erakunde eta sektoreen arteko artikulazioa.

Borroka herrikoien prozesu berriak sendotzen ari direla kontuan izanik, lurraldearen, lurraldearen eta ondasun naturalen aldeko erresistentzian eragile berriak inplikatzeko, megaproiektuen aurkako aldarrikapenak edo PPP, TLC... bezalako ondorioak, antolatutako komunitatearen eta borroka frenteen egitekoa erabakigarria da, lurralde zein nazio mailan, hainbat erakunde inplikatzeko baititu.

Horregatik guztiagatik, gure lanaren ardatz nagusi gisa borroka etnikoen, genero eta gizarte maila borrokan inplikazioa jartzen dugu, baita lan komunitarioaren inplikazioa ere udalerriri, departamentu, nazioa eta nazioz gaitzeko mailan.

Ildo hauei jarraituz hasi gara Sector de Mujeres erakundearekin lanean. Gizarte mugimendu eta emakumeen mugimenduan erreferentea da. ASECSAren egindako urteetako lanari jarraipena emango dio, herrialdearen ipar-ekialdeko herri hezkuntzaren bidez gizartearen eraldaketa konprometitutako lidergoaren formaziorako eta UKUXBekin mugimendu sozial indigena indartsiu baten sorrera lagunduz.

Hurrengo urterako erronkak ildo hauetan sakontzen jarraitzea da eta koordinazio eta aliantzak sendotzea.



2008an ONARTUTAKO NAZIOARTEKO KOOPERAZIO PROIEKTUAK					
HERRIALDEA	SEKTOREA	EGOITZA SOZIALA	ERAKUNDEA	PROIEKTUA	GUZTIRA
El Salvador	Parte hartzea eta demokrazia. Emakumeen jabetzuntza	Las Dignas	Bilboko udala	El Salvadorreko mugimendu feminista indartzea	160.000,00
Bolivia	Erakundeak indartzea, Giza Eskubideak	CEFREC	Bilboko Udala	Ikusentzunezko komunikazioan eta indigenen eskubideetan gaitasuna indartu eta entrenamendu espezializatua genero ikuspegiarekin.	80.000,00
El Salvador	Emakumeen jabetzuntza Giza Eskubideak	Las Dignas	Eusko Jauriaritza	Emakumeen tokiko erakudea indarkeriarik gabeko bizitza baterako duten eskubidearen alde	240.697,06
Nikaragua	Emakumeen enpoderamendu	Xochilt-Acalt	Eusko Jauriaritza	Larreynaga herriko emakumeen autonomia ekonomiko eta ideologikoa eraikitzea	219.526,06
Kuba	Beste batzuk (elikadura subiranotasuna)	ACPA	Gipuzkoako Foru Aldundia	Cienfuegos probintziako ekoizle, zuzendari eta teknikarien gaitasuna sustatzea.	121.787,06
Nikaragua	Emakumeen jabetzuntza	CMR	Gipuzkoako Foru Aldundia	Telica, Quezalaguaque y Chinandega herrietako emakumeen enpoderamendu politiko-ideologikoa eta ekonomikorako enpoderamendu prozesuak laguntzea	121.119,26
Nikaragua	Emakumeen jabetzuntza	CMR	Getxo	Telica (Nikaragua) herriko landa inguruneke emakumeen antolaketa autonomorako prozesuak laguntzea	21.199,55
Nikaragua	Emakumeen jabetzuntza. Osasuna	Xochilt-Acalt	Arabako Foru Aldundia	Osasun integralerako zerbitzuetara sarbidea, genero ikuspegiarekin eta Larreynaga herriko emakumeen enpoderamendu ideologikorako prozesuetan lagunduz	192.883,07
Nikaragua	Emakumeen jabetzuntza	Xochilt-Acalt	AECID	Pobrezia gutxitzea genroaren eta ingurumenaren ikuspegitik, Larreynaga herrian	349.945,00
Bolivia	Parte hartzea eta demokrazia. Giza Eskubideak	Cefrec	Eusko Jauriaritza	Boliviako lurralde bauetan indigenen eskubideak defendatzeko kulturen arteko komunikaziorako sistema	1.194.120,00
Bolivia	Parte hartzea eta demokrazia. Giza Eskubideak	Cefrec	Donostiako Udala	Komunikaziorako estrategia nazionala, indigenen eskubideak eta asanblada eratzailea indartzea	19.000,00
Kolombia	Parte hartzea eta demokrazia. Giza Eskubideak	OIA	Eusko Jauriaritza	Embera herriaren lurralde autonomia indartzea	224.909,04
Guatemala	Erakundeak indartzea	ASECSA	Eusko Jauriaritza	Erakunde sozial eta herrikoietan gaitasun politiko-metodologikorako gaitasuna indartzea	395.715,34
Guatemala	Hezkuntza. Parte hartzea eta demokrazia	UKUXBE	Bizkaiko Foru Aldundia	Formazio politikorako eskolaren bidez liderrak izango diren gizon eta emakumeak formatzea	127.500,00
Eskualdekoa	Giza Eskubideak	GGKE Partzuergoa	AECID	Herri indigenen garapenerako laguntza egta hauen eskubideak onartzeko eta aplikatzeko.	4.000.000,00

7.683.055,67



Garapenerako sentsibilizazioa eta hezkuntza

Sed



Bigarren Mundu Gerra amaitu eta hiru urte beranduago, Estatu Batuek Marshall Plan historikoa inplementatu zuen. Horren helburu nagusia gerraren ondorioz erabat suntsituta zegoen Europa ekonomikoki laguntzea zen; izan ere, milioika pertsona eta hainbat material galdu ziren gatazkan. Marshall Planaren zati handi bat Estatu Batuetako lehengaiak eta manufaktura erostean oinarritzen zen.

Planaren funtsezko osagaietako bat plana jasoko zuten herrialdeetan erakutsi zitezkeen Estatu Batuetako ekoizpen zinematografikoei buruzko klausula sinatzea zen. Propagandarako mekanismo indartsuak ziren eta, horietan, «planaren onurak» azaltzen ziren, eta Estatu Batuek ezarritako bide ekonomikoa «jarraitu beharrekoa» zenaz konbentzitzen zituen Europako eta, bereziki, Alemaniako biztanleak.

Horrela, gutxinaka, Estatu Batuetako zinemak Europa osoko zinema-aretoak bereganatzen hasi zen, eta Estatu Batuetako bizimoduaren propagandarako biderik onena bihurtu zen, bai marken publizitaterako, bai eta bizitzeko estiloetarako ere. Erresuma Batuko historialari David Allwooden arabera, Marshall Planak zabaltzen zuen zinemako esloganak honako hau zioen: «Zuek gu bezalakoak izatera iritsi zaitezke, eta gu bide onean gabiltza». Batez ere, Estatu Batuetako sistema ekonomikoa aurrerapenaren faktorea zenaz konbentzitzea zen helburua.

Parte-hartzea gizartearen transformazioaren funts bezala da Mugarik Gabe erakundearen apustu argia. Gizarte eredu estatikoek, patriarkalek eta ekonomizista hegemonikoek errealitate berriak sortzeko era oso estuak eta mugatuak bultzatzen dituzte. Horregatik, Mugarik Gabe erakundeak erreferentzia-eredu berriak, kultura berriak bultzatzen ditu; horietan, errespetuan eta berdintasunean oinarritutako harremanek etorkizuneko gizartea egituratzen dute.

Aktibazio soziala, parte-hartze arduratsuaren bultzapena, indartze prozesuen babesa eta autonomia pertsonalaren eta kolektiboaren aldeko jarrera positiboa funtsezko aspektuak dira Mugarik Gaberen estrategia metodologikoak.

Esparru horretan, hausnarketa-eremu egokia sortu da, azken urteetan hainbat gatazka eta aldarrikapen sozial babestera bultzatu gaituzten planteamendu ideologikoen koherentea izango den lan sentsibilizatzailea garatzeko, gero eta baldintzatuagoa dagoen munduan, ikus-entzunezko baliabideek izan ditzaketen aukera demokratikoak aitortuta.

Gaur egun, Estatu Batuetako zinema sistema neoliberal kapitalistaren barnean bakartzat jotzen den pentsamendu bakarra eta homogeneizatzailea zabaltzeko era arrakastatsuenetako bat izaten jarraitzen du.

Komunikazio mota honetan, non islatzen da planetaren kultura-aniztasuna? Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean aitortutako komunikazio eskubidea eta informazio anitza jasotzeko eskubidea? non dago komunikazioaren gune nagusien esku ez dauden emakumezkoengandik, herri indigenetatik eta gazteengandik sortutako komunikazioa?

Azken 15 urteetan, Mugarik Gabek sistema globalizatzaile horrek ikusezin bihurtutako taldeek eta pertsonak sortutako ikus-entzunezko materiala zabaltzeko guneak irekitzearen aldeko apustua egin du. Urtero, EAEko lau hiritan eta 15 herri baino gehiagotan **Zinema eta Lankidetzaren Erakusketak** antolatzen ditugu; horiek munduan existitzen diren errealitate kopuru handia ezagutzera ematen diguten hainbat errealitate kultural, ekonomiko eta sozial islatzen dituzte.





Erakusketa horien funtsezko balioa ez da munduko beste errealitateak ezagutaraztea bakarrik; izan ere, errealitate horiek erakusten dizkigutenak bizitzen dutenak dira. Komunitate txikiek, handiek, kolektiboek edota pertsona bakarrek euren kezka agertu eta zabaldu dituzte, komunikabideak eskuratuta. Euren lanetan, berezko eta tokiko bertsioa azaltzen digute, pantailetan ikus ohi dugunaren aurka.



Beste komunikazio bat posible egiteko Mugarik Gaberen nahiak **Latinoamerikako Herri Indigenen Zinemaren eta Komunikazioaren Koordinakundearekin (CLACPI)** eta **Kubako Zinema Pobrearen Nazioarteko Zinemaldiarekin** lan egitera bultzatu gaitu.



Lankidetzaz horrek hainbat **zinemalditan** parte hartzea ere eraman gaitu. Apirilean, Gibarako Zinema Behartsuaren Nazioarteko Zinemaldiko epaimahai izan ginen; ekainean, Kanarietako Festivalitora joan ginen eta ZureVision Spot Sozialak zabaldu genituen; irailean Bolivian izan ginen, CLACPIren IX. Zinemaldian, eta azaroan L'Alternativa Bartzelonako zinema independentearen zinemaldian izan ginen.

Hainbat gunetan izandako presentzia horrek beste komunikazioa posible egiteko interes bera duten beste pertsonekin eta kolektiboekin harremanak sendotzeko aukera ematen digu.

Kultura globalizatuarearen eta besterentzatuarearen aurrean komunikazio independentea eta anitza bultzatzeko helburu berarekin, **urtero, ZureVision SocialVision** lehiaketa antolatu ohi dugu. Spoten nazioarteko lehiaketa gizartearen transformazioa iragarki laburren bidez bultzatu nahi duten pertsona guztiei dago zuzenduta.





16

Zer egiten dugu gure inguruan

2008. urtearen oroigarri honetan, ezin dugu gure lagun Humberto Solás ahaztu.



Humberto Solás

director de cine,
compañero.

Amigo
te echaremos de menos

Humberto fue director de cine cubano que supo mirar con profundidad y con una mirada crítica a veces las cosas de su querido entorno, Cuba, y nos las mostró en sus películas. Pero, sus ojos, fuera del visor de la cámara, miraban con amor, un amor por su tierra y sobre todo por su gente. Tenía fe en la gente, en la gente de Gibara a la hora de plantear hacer allí el Festival de Cine Pobre de Gibara, un festival donde logró la implicación de todo un pueblo por lograr una cultura diferente, un festival rico en ilusiones. Gibara ayer rota por el Huracán Ike, Gibara hoy destrozada por la pérdida de Humberto. Como los gibareños, y junto a su familia, desde Mugarik Gabe te echaremos de menos, pero sobre todo por su interés y dedicación hasta el final en cambiar este mundo y hacerlo mejor.

Humberto maitea:

Badakigu joan egin behar duzula. Oraingoan, zure abiatzea saihestezina da; hala ere, kosta egiten zaigu berriz ikusiko ez zaitugula pentsatzea. Kubako zinemak bere zuzendari nagusienetako bat galdu du, baina horrek ez gaitu kezkatzen, zure lana gelditzen zaigu, eta beti egongo da Karibeko uhartean istorioak kontatzeko prest. Gibarako Zinema Pobreakin Zinemaldiak bere sortzailea galdu du, baina horrek ere ez gaitu kezkatzen. Horretan sinesten dugunok babesten jarraituko dugu, zuk babesten zenuen indar berarekin. Benetan kezkatzen gaituena lagun ordezkazezina galdu izana da. Zinema izarrez beteta dago, zureak beti egingo du distira Gibaran, bai eta gure bihotzetan ere

Agur Humberto, betira arte.

La Causa de Kripan

Omer Oke Bilbon bizi den Beningo zinema-zuzendariak (Afrika) «La Causa de Kripan» film luzearen ekoizpenean parte hartzeko aukera proposatu zion Mugarik Gaberi, 2007ko amaieran, hizkuntza zinematografikoaren indarra mozketari jasaten duten milioika nesken eta emakumezkoen sufrimendua adierazteko erabiltzeko.

Sinopsia: Alassanek, Euskadin bizi den Burkina Fasoko gazteak, bere anaia Aliren deia jasotzen du. Horrek esaten dio, bere herrian, bere gurasoek eta bere emaztearen gurasoek 6 urteko alaba Bintouri ablazioa egitea adostu dutela. Zeremonia astebete barru egitea aurreikusi dute. Alassanek ez du bere alaba moztea nahi, baina 6 hilabete falta zaizkio bakarrik Espainian paperak lortzeko. Bere herrialdera itzultzen bada, ezin izango da itzuli eta pikutara bidaliko du hainbeste kostatutako ametsa. Mugitu zaitetz, Alassane!





Zer egiten dugu gure inguruan

17

SENTSIBILIZAZIO ETA GARAPENERAKO HEZKUNTZA PROIEKTUAK 2008

BIZKAIA			
	ERAKUNDEA	IZENBURUA	Zenbatekoa
1	BBK Sentsibilizazioa eta hezkuntza	Komunikazio mostra, aniztasuna	20.000,00
2	BBK Publizitatea	Helduentzako material didaktikoa	3.000,00
3	Bizkaiko Foru Aldundia	5. Komunikazio eta Garapen Mostra Bizkaian	60.000,00
4	Bilboko udala	XIII. Zine eta Kooperazio Mostra	20.000,00
5	Bilboko Udala	2008ko egutegia	9.784,30
6	Eusko Jauriaritza	LA CAUSA DE KRIPAN	220.551,23
GUZTIRA			333.335,53
ARABA			
	ERAKUNDEA	IZENBURUA	Zenbatekoa
1	Arabaka Foru Aldundia	VI. Zine Sozialaren Mostra	24.015,98
2	Gasteizko Udala	Herri indigena eta mutinazionalak	2.500,00
GUZTIRA			26.515,98
GIPUZKOA			
	ERAKUNDEA	IZENBURUA	Zenbatekoa
1	Donostiako Udala	12. Zine eta kooperazio Mostra "Herri Indigenak"	19.046,34
2	Gipuzkoako Foru Aldundia	Zine sozialaren mostra	85.000,00
3	Irungo Udala	12. Zine eta kooperazio Mostra	10.515,18
GUZTIRA			114.561,52
GUZTIRA OROKORRA		2008KO SENTSIBILIZAZIO ETA GARAPENERAKO HEZKUNTZA PROIEKTUAK	474.413,03

Zure Vision Social Vision

MUESTRA DE CINE Y COOPERACION

Nazioarteko Spot Sozialen Lehiaketa

Kultura globalizatzailearen eta besterentzailearen aurrean, komunikazio independentea eta anitza bultzatzeko, Spot Sozialen Nazioarteko lehiaketa antolatzen du urtero: ZureVision-SocialVision (ikuspegi sozialari buruz duzun ikuspegia).

Hautatutako lan guztiak Mugarik Gabek antolatutako Zinema eta Lankidetzeta Erakusketa guztietan zabalduko dira.

Lehiaketerako gaiak

Genero berdintasuna, emakumezkoak, giza eskubide indibidualak eta kolektiboak, interkulturalitatea, ekologia, garapen iraunkorra, globalizazio neoliberalak.

Sariak

Sariak: 1.000 €ko saria iragarki onenari, eta publikoaren aintzatespenaren saria.

Oinarriak: www.mugarikgabe.org





¿Zergatik egiten dugu intzidentzia politikoa?

**RESIST
DISID
INCID** IR

Intzidentzia sozial eta politikoa gizarte zibilak politika publikoetan eragina izateko bidea da, horregatik, herritarrek gobernuaren eta bere administrazioen aurrean egiten duten demokrazia eta eskubide ariketa da.

Intzidentzia sozial eta politikoa GURE LANEAN OINARRIZKOA da.

Bizkaiko Herrialdea

2008an, beste urteetan egin izan dugun bezala Bizkaiko MGk burututako hainbat ekintza aipatu nahi ditugu, hala nola, Bizkaiko kolektibo eta plataformetan parte hartzea, politikan eragiteko.

MGren jardueren artean, Derio-Zamudio herri lasterketaren antolaketan jarraitu dugu, irailean. Urrian Somorrostroko FPko elkartasun astean laguntzen jarraitzen dugu eta Getxon informazio stand bat jartzen dugu MGren materialekin Getxatik Mundura azokan. Trapagarango Hitza kalean kolektiboaren, Muskizko Alez Aleren, Durangoko Plateruenaren, Leioa Kultur Sailaren zein Mendieta Kultur Elkartearen lana azpimarratu nahi dugu, hauekin batera lan egiten dugu, herri hauetan elkartasun ekintzan sustatzen saiatuz.

Pentsatzen dugu beste gizarte mugimendu batzuekin koordinazio ezinbestekoa dela ohikoak diren gaietan herritarrengana errazago heltzeko, baita nazioarteko ekintza eta salaketak egiteko, gizarteari zein erakundeei zuzenduak. Horregatik honako guneetan parte hartzen dugu:

- Euskadiko GGKEen koordinadora lehendakartzaren bidez, Kooperaziorako Euskal kontseilua, Jarduera kodearen jarraipen batzordea, Bilboko Udaleko kooperazio kontseilua eta genero eta eragin politikoko lan taldeak.
- Martxoaren 8ko plataforma: Emakumearen Nazioarteko eguna.
- Azaroaren 25eko plataforma: Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna.
- Herri Ekimen Legislatiboa: Pobretutako herrialdeekin justizia eta elkartasun karta.

Bestetik, kanpaineekin bat egin dugu (manifestuak sinatu, manifestazioetan eta jardueretan parte hartu) besteak beste:

- Ekintza globalaren eguna
- Giza Papilomaren txertoaren aurkako kanpaina
- Pobreziaren aurkako nazioarteko eguna
- Nikaraguako feministen aurkako errepresioaren salaketa
- G-8aren aurka
- Laikotasunaren alde: eliza katolikoaren etengabeko erasoerantz erantzuna



- Apostasiaren aldeko kanpainaren hedapena
 - Objekzio fiskalaren hedapena eta laguntza
 - SOS Arrazakeria Manifestazioan parte hartzea, martxoaren 28an
 - Munduko arrozak azokan parte hartzea ekainean
- Aurten Bizkaian egindako lanak 13 boluntarioen laguntza izan du, asteroko bilerak eginez. Bilera horien zati gisa formaziorako eta hausnarketarako gune bat sortu dugu, hileroko egingo da eta egunerokotasuna duten gaiak sakonduko dira. 2008an honako gai hauek landu ditugu: Guatemalako egoera, GGKEen erronkak mundu globalizatuan, sexu eta emaketa eskubideak, El Salvadorreko emakumeen egoera eta Las Dignasen lana, Festivalito eta Kubako egoera eta Herri Indigenen errealitatea.

Urtean zehar egindako beste jarduera batzuen artean aipatzekoa da Mugarik Gaberen 20 urteurreneko festaren ospakizuna 2008aren hasieran, hainbat kolektibo eta lagunekin batera egin genuena.

Azkenik, 2009 urterako erronkak planteatzen ditugu:

- MGren parte hartzea eta inplikazioa hobetu egungo plataformetan eta aurrerapen estrategikoak lortzeko giltzarri direnak identifikatu.
- Bizkaiko bilerak hobetu gune honi edukiak, eztabaidak, ikasketak, ideia trukaketa, ekintzen proposamena...proposatuz, eta formazio eta hileroko hausnarketarako gunea mantenduz.
- MGko boluntarioen eta militanteen egungo egoera aztertu, hauen interesak eta motibazioak. Zentzu horretan MGk zer eskaintzen duen aztertu, zer motatako parte hartzea bultzatu nahi dugun eta nola hobetu.
- Bizkaian MGrentzako lokal berria lortu
- MGren antolaketa eta ebaluazio tresnak erabili.



Arabako Herrialdea

Arabian aipatu nahi ditugun ekintzen artean **garapenerako hezkuntza lan ezberdinekin eta sentsibilizazioekin** hasiko gara:

- **Kontsumoa:** "Zentuz Kontsumituz" proiektua 2006an hasi zen eta gizarte aru hainbat galdera egiten dizkio, hala nola, nola eragiten du gure kontsumoak munduko berdintasunetik gabeko harremanetan? Eta daukagun erantzukizuna agerian uzten du, ez baikara gure kontsumitzeko moduaren botere politikoaz, konplizeak edo ezjakinak?.
- **Komunikazioa:** Gasteizko zine eta kooperazio mostra egin genuen, eta Arabako herri ezberdinetara eraman genuen.

Eta sarean egindako lanean eta erakunde arteko laguntzan sinesten dugunez, beste **erakunde eta gune sozialekin elkarlanean lan egiten dugu:**

Arabako GGKEen koordinadora: lurraldeko asanbladeei laguntza, kanpainetako lan taldean presentzia eta komunikazio taldeko "Sintoniza tu sur" irratiaioan parte hartzea. Koordinadora honen bidez kaleko hainbat ekintzetan parte hartu dugu: G-8aren eta EPAen (Acuerdos de Asociación Económica) aurka eta Pobrezia 0 kanpaina, beste batzuen artean.

Kooperazio kontseilua: Hiru hilean behin egiten diren kooperazio kontseiluetan parte hartzen jarraitzen dugu. Parte hartzaileagoa eta GGKEentzat ordezkaritza handiagoa izan dadin kontseilua hori dinamizatzen saiatzen den taldeko partaide gara.

Plataformak: Herri ekimen legislatiboa, Martxoak 8: Emakumeen Nazioarteko eguna eta Azaroak 25: Emakumeen aurako indarkeriaren aurkako eguna.

Bestetik, Amurrioko GGKEen azokan parte hartu dugu, gune hori bisibilizatorako eta kalera hurbitzeko espazio egokia izanik gugana hurbildu nahi duen jendearekin eragiteko aukera ematen digu.

Beste gizarte mugimendu batzuekin ditugun harremanek elkarrekin erakitzeke helburua dute. Horregatik, gure hiriarren errealitatea dinamizatu eta eraldatzen duten gizarte eragileekin lan egiten dugu. Mila esker kolektibo horiei guztiei haiekin lan egin dezakegulako, aniztasunekin borroka partekatzean dakarren aberastasunagatik.

Antolaketa mailan, aurtengoa Arabako herrialdean gure prozesuari laguntzen dioten aldaketa une horietako bat izan da. Arabako MGra amatasuna iritsi da, izan ere bi lankidek ama izatea erabaki dute, eta horrek aukera eman digu gune eta errealitate berriak partekatzeko. Aldaketak orok berregituraketak egitea dakar, eta horregatik lankide berriak etorri dira, gure jarduerari elikiatuz eta ikuspegi berriak emanez

Boluntarioen presentziaren aldaketa ere aztertu behar dugu. 9 pertsonaz osatutako taldea osatu genuen MGren inguruan eta 2 urtetan zehar jabetu dira beste borroka batzuetan murgildu direlarik. Orain gune hori erakitzeke unean gaude, beraz gu ezagutzera hurbildu nahi duten pertsonak, badakite Mugarik Gabe non aurkituko duten. Gure lanerako asmoa, militanteekin batera, pertsonentzat orekatuagoa izango den gizarte erakunde baten proposamen berri gisa interesak partekatzen ditugun prozesuak erraztea da.



Arabian egin diren **unibertsitateko praktikei** dagokionez, aurtien lan hori hobetzen saiatu gara. Eta pentsatutako guztia betetzerik izan ez dugun arren, oso pozik gaude gizarte laneko bi kidek eta gizarte hezkuntzako beste kide batek egin duten lanerakin. Sentsibilizazio lanak egin zituzten, emantzipatorako tresna gisa komunikabideak erabiltzen ikasi zuten, komunikazio alferbatiboari buruzko tailerra eman zuten eta herrialdearen eguneroko lanetan inplikatu ziren, formazioetan eta plataformetan parte hartuz. Zine moztan eskaini zuten laguntza ezinbestekoa izan zen.

Arabian **formazio-gunearekin** jarraitu dugu, eta aurtien honako gai hauek landu ditugu: komunikabide alferbatiboak, maskulinitatea, gutxiengoak eta komunikabideak, Latinoamerikako transnaziionalen eragina, nazioarteko erakundeak (FMI, BM, OMC, ...), Guatemala eta Palestinaren egoera eta genero berdintasuna.

Arabako **bazkideei** dagokionez, 2008an 42 pertsonak mantendu dute gure erakundeari ematen dioten laguntza. Zuen konfidantza eta iraunkortasuna eskertu nahi dugu, urte asko baitaramatzazue Mugarik Gaberi laguntzen. Badakizue non gauden nahi duzuegureko. Eta zuretzat, etorkizuneko bazkidea, jarraituz gurekin harremanetan, Zure laguntza ezinbestekoa da.

Azkenik aipatu nahi dugu gure eguneroko lanaren barruan herrialdea osatzen dugun pertsonen arteko lankidetzaz estutzen saiatzen gara. Hurbileko pertsonekin elkartasunetik ez duen mundua ez bailitzateke posible izango.





Gipuzkoako Herrialdea



Erakunde publikoekiko zein GGKEekin koordinazioan izandako eragin politikoari dagokionez, 2008n Gipuzkoan honako hauek azpimarratu nahi ditugu:

Lan egiten dugun **erakunde publikoei** dagokienez, oso modu positiboan baloratzen dugu lau urteren ondoren, azkenean 2008an Donostiako Udaleko Garapeneko Kooperazio eta Hezkuntza Kontseilu Aholkularia sortu izana, bertan parte hartzen dugularik eta Batzorde Iraunkorreko kide izanik. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kooperazio eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Orokorrekin dugun hitzarmenari esker Gipuzkoako hainbat herritan presente egon ginen Zine Mostraren bidez. Eta azkenik, Irungo Udalarekin ere harremana estua izan zen bertan egindako Zine Mostragatik zein Leongo (Nikaragua) Landa Inguruneke Emakumeen komitearekin dugun urte anitzetako proiektuagatik.



Gipuzkoako GGKEen koordinadorako gure parte hartzeari dagokionez, Intzidentzia politikoaren taldean, 2008an azterketa bat egin zen: "Análisis de la cooperación pública en Gipuzkoa 2005-2007", duela gutxi argitaratu dena. Lan horretan zehatz mehatz aztertzen da Gipuzkoako erakunde publikoek epe horretan sustatutako garapenerako kooperazioa.

Horrez gain, **Pobrezia 0** plataforman aktiboki hartzen dugu parte, eta 2008 urtea ez zen salbuespena izan, Gipuzkoako Plataforma hau estatu mailan aktiboena eta antolatueenetakoa izanik. Hala, beste gauza batzuen artean, komunikazio taldean idatzizko hileroko prentsan presentzia izateko modua landu zen, eta urriaren 17aren (Pobrezia aurkako nazioarteko eguna) inguruko ekitaldiak antolatzen lagundu zen. Arrakasta handia izan zen proiektioetara eta hitzaldietara joan zen jende kopurua kontuan hartuta.



Antolaketari dagokionez, 2007an Gipuzkoako Herrialdean gertakaririk aipagarriena egoitza berria izan zen. Urte horretan, otsailaren 14ko inaugurazioaren ondoren egoitza erabat egokitu zen. Egoitza berriak, beste gauza batzuen artean, espazio zabal eta erosoagoa eman digu lanerako. Era berean, erakuslehiok Mugarik Gaberen materiala eta mezuak erakusteko aukera eman digute, auzoan geure burua ezagutzera emanez eta gure autofinantzazioa areagotuz.

Bukatzeko, aipatu beharra dago 2008an Mugarik Gaben boluntario egonkorrek sartu zirela, gurekin puntualki kolaboratzen duen jendeaz gain. 2009 urtea hori guztia egonkortzeko urtea izango da, baita gure Planifikazio estrategikotik eratorritako erronkei aurre egiteko urtea ere.



Aliantzak eta lan taldeak egiten ditugu

Mugarik Gabe erakundeak uste dugu beste plataformekin eta erakundeekin batera lan egiteak eta horiekin esperientziak trukatzeko gizarte-sarea indartzen duela eta, horrez gain, gure planteamendu estrategikoak ere sendotu egiten dituela.

Nazioartean

- Nazio Batuen Informazio Sailari atxikia.
- Herri Idigeneen Zine eta komunikazio Latinoamerikarreko koordinadoran - CLACPI - Estatuko nazioarteko korrespontsala.

Guatemalan Andresek honako koordinadoretan hatu du parte:

- Europar Batasuna-Ertamerika elarterako ezabaidarako lan taldea.
- Nazioarteko GKEen foroa, bereziki generoaren batzordean.
- Amerikako Foro Soziala antolatzekeo Gizarte Mugimenduen asanblada.
- Elkarrizketaren aldeko ertamerikako kolektiboa, mugimendu sozial eta kooperazioko mugimenduen lan bateratuak estrategiak zehazteko.

Tokian tokiko eremuan

- Euskadiko GGKEen koordinadora: Lehendakaritza, batzordea, jarraipen batzordea, lan-baldintzak, Euskal kooperazio kontseilua, eragin taldea, genero berdintasuna
- Euskadiko GGKEen koordinadora Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan: Lurraldeko asanblada eta Eragin politikorako taldea
- Bilbo, Donostia eta Gasteizko kontseilua
- Pobrezia Zero Plataforma Gipuzkoan
- MARTXOAREN 8ko koordinadora Bizkain eta Araban
- Azaroaren 25eko koordinadora Bizkaian
- Kubarekin eta Guatemalarekin Euskal Kooperazio Mahaia
- Getxoko lan taldea
- Gasteizkoak (kolektibo antimilitarista) Araban
- Hala Bedi, asteroko irratsaioarako lankidetzak Araban.

Estatu mailan

- Pueblos aldizkariaren erredakzio kontseiluan partaidetza
- Indigena eremutik Indigeneen Eskubideen Defentsarako (MG, AlterNativa (Katalunia), Almáciga (Madril) eta Acsud (Herrialde Valentziarretan) Sarea deiturikoarekin harremana estutu da. Hori guztia Diálogos I (AECID-06), AECID-07 hitzarmena eta Diálogos II, AECID-08 proiektu berriaren garapenean.





Bezeroa:	MUGARIK GABE		
Lana:	Urteko kontuen auditoria	MAZARREDO AUDITORES, S.L.	
	2007ko GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA	Zenbatekoak eurotan	
		Auditoria: 2007/12/31	2/2
	ZOR	Saldoa	Aurreko saldoa
GASTUAK		3.488.112,35 €	3.812.000,17 €
	2. Horniketak	5.101,64 €	0,00 €
	b) Lehengaien eta beste materia kontsumigarrien kontsumoa	5.101,64 €	
	3. Pertsonal gastuak	471.842,78 €	495.003,65 €
	a) Soldatak, ordainsairik eta antzekoak	371.351,05 €	385.497,02 €
	b) Zama sozialak	100.491,73 €	109.506,63 €
	4. Ibilgetuak amortizatzeko hornikuntza	6.189,92 €	6.091,95 €
	6. Beste ustiapen gastuak	3.001.115,61 €	3.285.381,95 €
	a) Kanpoko zerbitzuak	355.325,58 €	409.823,30 €
	b) Zergak	65,88 €	
	c) Kudeaketako gastu arrunt batzuk	2.645.724,15 €	2.875.558,64 €
	d) Lehengoratzte funtsaren hornikuntza		0,01 €
I. USTIAPEN ETEKINAK			1.400.478,87 €
II. EMAITZA FINANTZARIO POSITIBOAK		5.506,10 €	6.149,66 €
III. OHIKO JARDUEREN ETEKINAK			146.628,53 €
	13. Ez ohiko gastuak	1.279,27 €	25.160,74 €
	14. Beste ekitaldietako gastuak eta galerak	2.583,13 €	361,88 €
IV. EZ OHIKO EMAITZA POSITIBOAK		943,51 €	
V. ZERGA AURREKO ETEKINAK			125.482,42 €
VI. EKITALDIAREN EMAITZA (ETEKINAK)			125.482,42 €

Bezeroa:	MUGARIK GABE		
Lana:	Urteko kontuen auditoria	MAZARREDO AUDITORES, S.L.	
	2007ko GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA	Zenbatekoak eurotan	
		Auditoria: 2007/12/31	2/2
	IZAN	Saldoa	Aurreko saldoa
SARRERAK		3.423.815,63 €	3.937.482,59 €
	1. Negozio zifraren zenbateko garbia	24.289,30 €	25.312,01 €
	a) Salmentak	2.916,40 €	1.148,80 €
	b) Zerbitzuak ematea	21.372,90 €	24.163,21 €
	5. Beste ustiapen sarrera batzuk	3.389.214,32 €	3.901.644,41 €
	a) Sarrea osagarriak eta kudeaketako arrunt batzuk	3.389.214,32 €	39.901.560,41 €
	b) Diru-laguntzak		84,00 €
I. USTIAPENAGATIK GALERAK		70.646,33 €	
	6. Beste interes eta sarrera asimilatuak	5.506,10 €	6.149,66 €
	c) Beste interesak	3.962,23 €	2.927,02 €
	d) Etekinak inbertsio finantzarioetan	1.543,87 €	3.222,64 €
II. OHIKO JARDUEREN GALERAK		65.240,23 €	
	12. Ez ohiko sarrerak	1.339,66 €	5,79 €
	13. Sarrerak eta beste ekitaldi batzuetako etekinak	3.466,25 €	4.370,72 €
III. EZ OHIKO EMAITZA NEGATIBOAK			21.146,11 €
IV. ZERGA AURREKO GALERAK		64.296,72 €	
V. EKITALDIAREN EMAITZAK (GALERAK)		64.296,72 €	




Bezeroa:	MUGARIK GABE		
Lana:	Urteko kontuen auditoria	MAZARREDO AUDITORES, S.L.	
	2007eko BALANTZEA	Zenbatekoak eurotan	
		Auditoria: 2007/12/31	1/2
	AKTIBOA	Saldoa	Aurreko saldoa
B) Ibilgetua		11.654,97 €	13.846,60 €
	II. Ibilgetu ez materiala	659,80 €	985,87 €
	2. Kontzesio patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak	805,93 €	805,93 €
	5. Aplikazio informatikoak	1.293,53 €	1.293,53 €
	9. Amortizazioak	-1.439,66 €	-1.113,59 €
	III. Ibilgetu materialak	10.495,17 €	12.860,73 €
	3. Beste instalazioak, tresneria eta altzariak	28.354,64 €	25.006,19 €
	7. Amortizazioak	-17.859,47 €	-12.145,46 €
	IV. Ibilgetu finantzarioak	500,00 €	0,00 €
	7. Gordailua eta epe luzera osatutako finantzak	500,00 €	
Aktibo zirkulatzaila		3.922.017,92 €	4.379.232,34 €
	II. Izateak	1.000,00 €	0,60 €
	6. Aurrerakinak	1.000,00 €	0,60 €
	III. Zordunak	3.119.481,25 €	3.564.010,67 €
	4. Hainbat zordun	18.027,92 €	21.607,94 €
	5. Pertsonala	318,20 €	737,59 €
	6. Administrazio publikoak	3.101.135,13 €	3.541.665,14 €
	IV: Aldi baterako inbertsio finantzarioak	80.300,00 €	10.300,00 €
	5. Epe laburrerako balore zorroa	80.000,00 €	10.000,00 €
	7. Gordailua eta epe laburrera osatutako finantzak	300,00 €	300,00 €
	VI. Diruzaintza	720.896,71 €	804.468,31 €
	VII. Periodifikatzeagatiko doikuntza	339,96 €	452,76 €
	GUZTIRA OROKORRA	3.933.672,89 €	4.393.078,94 €

Bezeroa:	MUGARIK GABE		
Lana:	Urteko kontuen auditoria	MAZARREDO AUDITORES, S.L.	
	2007eko BALANTZEA	Zenbatekoak eurotan	
		Auditoria: 2007/12/31	2/2
	PASIBOA	Saldoa	Aurreko saldoa
A) Fondo propioak		302.020,01 €	366.316,73 €
	I. Kapital harpidetua	25.280,53 €	25.280,53 €
	IV. Erretserbak	341.036,20 €	215.553,78 €
	6. Beste erretserbak	341.036,20 €	215.553,78 €
	IV. Galerak eta irabaziak (etekina edo galera)	-64.296,72 €	125.482,42 €
B) Hainbat ekitalditan banatu beharreko sarrerak		354.390,80 €	3.956.106,30 €
	1. Kapital diru-laguntzak	3.534.390,80 €	3.956.115,05 €
	3. Hainbat ekitalditan banatu beharreko beste sarrerak		-8,75 €
E) Epe laburreko hartzekodunak		97.262,08 €	70.655,91 €
	II. Kreditu zenbatekoak dituzten zorrak	255,32 €	22,85 €
	1. Maileguak eta beste zor batzuk	255,32 €	22,85 €
	IV. Hartzekodun komertzialak	71.744,30 €	41.983,43 €
	2. Erosketengatiko edo zerbitzuak emateagatiko zorrak	52.271,39 €	33.800,60 €
	3. Ordaindu beharreko gauzen zorrak	19.472,91 €	8.182,83 €
	V. Komertzialak ez diren beste zor batzuk	25.262,46 €	28.649,63 €
	1. Administrazio publikoak	20.908,68 €	22.779,06 €
	2. Beste zor batzuk	714,90 €	714,90 €
	3. Ordaindu beharreko ordainsariak	3.638,88 €	5.155,67 €
	GUZTIRA OROKORRA	3.933.672,89 €	4.393.078,94 €



Gardentasuna eta kontuan ematea

2008 urtean zehar Euskadiko GGKEen Koordinadoraren ekiteko kodean jasotako irizpideak eguneratu eta partekatzeko lana egin dugu, eta horiek betetzen ote diren aztertzea erabaki dugu. Horretarako eskatutako galdetegia bete genuen eta galdetegi horrekin batera GGKEen Koordinadorako Jarraipen Batzordeak eskatutako dokumentazioa bidali genuen.



Auditoría 2007

Bizitza berpentsatuz

Serge Latouche, 1992an Rion egindako Forum Alternatiboan Osvaldo Pieroniren proposamena hartuta aipatzen dituen bide posibleak. 8 R bere programan modu grafikoan eta partzialki laburtzen saiatzen dena:

Berpentsatu edo berrebaluatu (gure baloreak aztertu: kooperazioa vs laguntza, prozesuak vs proiektuak, sentsibilizazioa vs hezkuntza, etab.);

Berkontestualizatzen (errealitatea kontzeptualizatzeko moduak aldatu, pobrezia eraikuntza soziala agerian utziz, eskasiarena, hegoaldean zein iparraldean, etab.);

Berregituratu (egitura ekonomikoak eta ekoizpenekoak balore aldatetara egokitu);

Berkokatu (ekoizpena eta kontsumoa maila lokalean sustengua eman);

Berbanatu (pertsonek guztiek baliabide naturalak eta aberastasuna eskuratzeko aukera izatea);

Murriztu (kontsumoa biosferaren karga-gaitasunera mugatu);

Berrerabili (kontsumismoaren aurka, iraunkorrek diren ondasunen aldeko apustua egin hauek konpondu eta kontserbatzeko);

Birziklatu (gure jardura guztietan).



Zer gertatuko litzateke?

Zer gertatuko litzateke egun batean esnatu eta gehiengoa garela ohartzen bagara?

Zer gertatuko litzateke bapatean injustizia bat, injustizia bakar bat, denok gaitzetsiko bagenu, denok emakume zein gizon, ez batzuk, ez gutxi batzuk, denok baizik?

Zer gertatuko litzateke banatuta jarraitu beharrean ugarituko bagina, elkartu eta gure pausua geldiarazten duen aurkaria kendu?

Zer gertatuko litzateke antolatuko bagina eta aldi berean armarik gabe aurre egingo bagenu, isilik, jendetza bat, milioika begietan zapaltzaileen aurpegiak, auparik gabe, txalorik gabe, sorbaldan esku-zartarik gabe, abesti partidistarik gabe, abestirik gabe?

Zer gertatuko litzateke nik zugatik eskatuko banu, hurrun baitzaude, eta zuk nigatik, hurrun bainago eta besteek gugatik, hurrun egon arren?

Zer gertatuko litzateke kontinente baten garrasia kontinente guztien garrasia izango balitz?

Zer gertatuko litzateke kexatu beharrean gorputza jarriko bagenu?

Zer gertatuko litzateke mugak hautsi eta aurrera egingo bagenu, eta aurrera, eta aurrera, eta aurrera?

Zer gertatuko litzateke bandera guztiak erreko bagenitu bakar bat izateko, gure, denona, edo hobe bat ere ez, ez baitugu behar?

Zer gertatuko litzateke bapatean abertzale izateari utzi eta gizaki izango bagina?

Ez dakit...neure buruari galdetzen diot zer gertatuko ote litzatekeen?

Mario Benedetti



III Amerikako Foro Soziala

¡ LAS MUJERES
DECIDEN, LA
SOCIEDAD RESPETA
Y EL ESTADO
GARANTIZA !!

Beste mundu bat posiblea da

2008ko urriaren 7tik 12ra Ameriketako III Foror Soziala ospatu zen Guatemala hirian. San Carlos unibertsitateak 10.000 pertsona jasotzuten elkarren artean eztabaidatzeko, proposamenak egiteko eta agenda bateratu bat zehazteko.



Amerikako Foro Soziala Munduko Foro Sozialaren (FSM) zati da. Honek 2001ean hasi zuen bere ibilbidea eta gizarte ekimenak artikulatzeko, pentsamendu kritikoa garatzeko eta ordena neoliberalerako alternatibak erikitzeko gunerik zabalena bihurtu da.

Herri askok "Aldaketa" hitzarekin bat egiten dute

Foroa herrien, mugimenduen eta ekimen sozial ezberdinen erresistentzia, borroka eta alternatiben proposamenei ireki zitzaion, eta zentzu horretan gune ireki bihurtu zen, bertan milaka ekimen bildu baiziren, esistitzen diren ekimenak eta hemisferioan eta munduan elkarbizitzan daudenak.

III AFS Latinoamerikaren une historiko batean ospatu zen, izan ere herri asko aldaketa hitzarekin eta aldaketa pluralerako proposamenekin bat egiten dute.

Hainbat herrialdeko ordezkariak inaugurazioan egin zuten ekitaldi politikoan gizarte zibilaren nahia adierazi zuten, ekitaldeko leloa errealitate egiteko: Beste Amerika bat posiblea da.

Eztabaidetako asko Hego Amerikan eraikitzen ari diren alternatiben ingurukoak izan ziren, mundu mailako eredu kapitalistaren krisia eta integrazio prozesu berrian, bereziki, Amerikako Alternatiba Bolibartarra (ALBA), Kubak,

Guatemala, 2008ko urriaren 7tik 12ra



*Kooperazioa, elkartasuna,
osagarritasuna eta genero ekitatea*

Venezuelak, Boliviak, Dominicak eta Hondurasek osatua, integrazio tresna gisa identifikatua, oinarri gisa kooperazioa, elkartasuna, osagarritasuna eta genero berdintasuna dituena.

Gure errealiterara hurbilduz eta Europaren ekintzek latinoamerikan duten eragina kontuan hartuz, Europar Batasunaren Asoziazio Akordioaren (ADAS) aurkako jarrera agertu zen. Akordio horren negoziazio egun horietan bertan egiten ari ze Guatemalako hiriburuan. Enpresa multinazional eta enpresa estraktiboen inbasioa gero eta handiagoa da eta eragin handia dute, gizartearentzat pobrezia sozial eta ingurumenezkoa dakarte.

Boliviarekiko elkartasun gunean ere egon ziren, herrialdea eskuinaren presiopean dagoen une hauetan. Gainera, Kubarekiko elkartasuna adierazi zen eta Ekuadorreko

prozesuaren alde egin zen, egun batzuk lehenago Konstituzio berria onartu baitzen. Konstituzio berri hori Ekuadorreko sektore ezberdinek idatzi zuten, jatorrizko herriak, nekazariak, gazteak, ekologistak, profesionalak, gizonak eta emakumeak; estatu prulinazional bat eraikiz herri indigenekin daukan zor historikoa kitatzeko eta garapenerako erregimen berria ezartzeko, gizakian eta ongizatean oinarrituta.

Foro Sozial honetako berrikuntza gisa esan dezakegu herri indigenen presentzia nabaria izan zela, eta hauen ahotsak,




beste Amerika bat posiblea da

Ama Lurraren defentsan mundo mobilizazioa

aldarrikapenek eta adierazpen kulturelek lekua izan zutela. Mugimendu indigenak ongizatearen eta plurinazionalitatearen alternatibak bultzatu zituen eta Ama Lurraren aldeko mundu mailako mobilizazio eguna antolatzea defendatu zuten.

Bestalde, nekazarien erakundeek ekoizpen eredu berria jarri zuten eztabaidagai, herrien elikadura subiranotasunean



Aniztasuna bermatzeko komunikazioa demokratikoa aldarrikatuz

oinarritua, planetari, energiari, elikaduraru eta klimari eragin dion krisiari erantzuna emateko.

Eta komunikabide alternatiboek dei egin zuten komunikazioa demokratizatzeke, Komunikaziorako eskubidea defendatuz, modu horretan dibertsitatea eta aniztasuna bermatuz.

Foro honetan presentziarik aipagarriena eta nabarmenena emakume eta erakunde feministena izan zen, gune propioa

izan zuten eta "El territorio de las Mujeres; mi cuerpo, mi tierra" izena eman zitzaion. Gune horren helburua neoliberalismo patrialkalaren borrokaren inguruan sakontzea izan zen, estrategiak eraiki eta bersortzea eta erronkei erantzuteko aliantzak lortzea.

munduan aldatu, bizi modu berriak landu, berdintasuna lortu, kretibitatea sustatu, mundu justoa eraiki

Erakunde hauek hartzen zituen karpa proposamenak eta ekintzak bateratuak elkartrukatzeko gune bihurtu zen, emakumeen borroka mundu mailan ikustaraztea lortzeko.

Amerikako Foro Sozialeko une tristeak Nikaraguako emakumeek bizi izan zituzten, izan ere Daniel Ortegaren gobernuak Nikaraguako delegazioa itzularazi zuen.

Adierazpen gehiago izan ziren, hala nola, mugimendu sindikala, Herrien Auzitegi Iraunkorra, arte eta kultura Foro soan zehar eta haurren eta gazteen mugimendu sendoari esker parte hartzaile guztiak sentitu ahal izan zuten sektore guztiak baikotzak bere eremuan baina elkarrekin lanean jarraitu behar dugula mundua eraldatzeko eta bizitzeko modu berri bat eraikitzeke, berdinagoa, sortzaileagoa eta justuagoa.

Foroa martxa koloretsu batekin bukatu zen, urriaren 12an, indigenen erresistentziaren egina, eta milaka pertsonak Guatemalako hiriko kaleetan zehar ibili ziren lelo beraren atzean, "beste mundu bat posible da".



emakumearen lurraldea; nire gorputza, nire lurra